

bidégileak



Jean Pierre Goytino (1860-1920)

Egilea:

**XIPRI ARBELBIDE**

## Lehen aldizkariak

ean Pierre Goytino ainhoarrak sortu zuen Kalifornian bizitza luze samarra izan zuen euskara hutseko lehen astekaria. Ameriketara joandako euskaldunen bizimodua, gorabeherak eta aztarnak jakin nahi dituenak hor du iturri paregabea.

Ainitzen ustez, euskarazko lehen astekaria, 1887an Donazarreko Louis Etcheverry deputuak sortu *Escualduna* da. Lehenbizikorik erran behar da hiruetarik bat baizik ez zela euskaraz, urte bat lehenago sortu *Le Réveil Basque*-k baino doi-doia gehiago.



Jean Pierre Goytino (1860-1920)

Euskara hutsez izanak ziren lehenago: Agozti Xahok 1848an Baionan sortu *Uscal-Herrico Gaset*a. Bi ale baizik ez zituen izan. Martin Biscailuz abokatak 1885ean Los Angelesetan plazaratu *Escualdun Gazeta*: hiru ale izan zituen.

Eta bereziki, 1893an, beti Los Angelesetan, Jean Pierre Goytinok sortu *Californiako Eskual Herria*. Bost urte iraun zuen.

Lehen biak ez dira ia kontagai ere. Hirugarrena, berriz, serioa izan zela erran dezakegu. Euskal Herriko historioan apur bat iraun duen euskara hutsezko lehen astekaria, amerikanoa dugu beraz. Nahiz guti ezaguna den, kolekzio bakar bat baizik ez baita gelditzen, Parisko *Bibliothèque Nationale* liburutegian dagoen Antonio Abadiarena. Kazeta honen aita, Jean Pierre Goytino, oso ezezaguna da.



Horace Bell abokatak fama txarrak hedatu zituen Goytinoz

## Lasallearretan

Jean Pierre Goytino, Ainhoan sortu zen 1860an, uzaileko 22an, aita, Arnaud Goytino, hor baitzen urte hartan, mugazain. Hau bera Larrañen sortua zen, bere aita han zelakotz mugazain sortu zen urtean. Arnaud-en lehen emaztea Julie Lapêtre Biarnesa, Urdozeko jostuna, han zelarik ezagutua.

Arnaud, 13 herritan egon zen bere 34 urtetako mugazain bizian. Bigarren emaztea, Jean Pierren ama, Gaxuxa Etxeberri, Kanboarra zen. Eta Jean Pierrek Kanboartzat zeukan bere burua, erroak zeuzkan herri bakarra hori baitzen.

Mugazainen munduak zenbatetaradino markatu zuen erakusten digu honek: aita eta aitona bezela, osaba ere mugazaina zuen. Mugazain bizia ez zen hala hulakoa garai haietan: Goytinoren aitona Baigorri aldean erail zuen 1833an kontrabandista talde batek. Osaba ere mugazain lanetan zebilela hil zen, ez dakigu zuzen nola. Aita bere semearekin zoala Kanbo eta Ezpeleta artean, egun argiz zanpatu zuten, kontrabandista bat gelditu nahi izan zuelakotz. Ez da harritzekorik beste ogibiderik bilatu bazuen semeak. Saleko Fraileetan sartu zen 1874an eta sotana jauntzi 14 urteak betetzekoak zituelarik *Frère Lupillien* izen arraroa ematen ziotela.

Ondoko urtean hasi zen lanean Orteseko eskolan lehenik, haur ttipiekin. Gero tokiz aldatu zuten askotan, Bordaletik Tolosara, Tar-

besen gaindi 8 eskoletan egoten zela 9 urtez, azkenean Hazparnen finkatzeko 1882an, *bre-beta* diploma eskuraturik Tolosan 1881ean, urriko 1ean.

Nahiz ez zuen Hazparnen luzatu, hor kutsatu zukeen euskararen mikrobioak, Mixel Elizanburu *Frère Innocentius* frailea baitzen kolegioko zuzendari. Ez zela fraile izateko egina pentsaturik dudarik gabe, 1883an prefeta eta eskoletako inspektoreari gutun bana igorri zizkien, erakasle postu bat eskatzeko eskola publikoan.



*Escualdun Gazeta*, Biscailuzek sortua Los Angelesetan 1885an



Hazparneko kolegioa

## *Errient edo maisu*

Ondoko urrian berean izendatua izan zen Zuraideko eskolara: eliza dorrean, atariaren gaineko sala batetan egiten zen eskola, hilerriak zirelarik haurren josta leku: 44 haur ziren klase bakar batetan, maila guzietakoak, ardi edo behi zain joan behar ez zutelarik agertzen zirenak klasean. Aita-amek nahi zuten katixima edo dotrina ikas zezaten. Matematika eta frantsesaz axola guti.

Goytino irakasle ona zitekeen zeren eta lehen urteko inspekioko txostenean irakurtu dugu eskolaren kalitatea hobetuz zola.

Ondoko urterako haizea itzuli zen. Ez dio konfiantzarik egiten gehiago inspektoreak:



Jean Pierre Goytino *La Vasconia* aldizkarian

eskuineko auzapeza eta seroren adiskide mina da errient berria eta Hazparneko fraileekin harremanak baditu. Zer duen ikustekorik horrek eskolarekin? Xuri-gorrien, errepublikatzale eta erregetzaleen gerla gorria zen Frantzian. Eliza, orokorki erregezale. Eskola publikoaren helburuetarik bat errepublika indartzea: errientek gorriak izan behar zuten beraz. Eta Goytino xuria agertu, fraileak uztearekin, denek uste izan zutelarik gorri bilakatu zela. Hauteskunde kanpainetan gorrien alde agertuko zela ere hitzeman zuten. Hiza jan beraz. Ideologiaz aparte ez zen arras arrazoirik gabe xuri agertzeko: Zuraideko auzapezak begi onez ikusiko zuten bere alaba xarmantarekin ezkondu zedien!

Ondoko urtean, musika bera, ez bada gogorragoa: hurrek ez dute oinarrizko frantsesa ere ulertzen! Egia erran bestetan ez zen hobeki: Beltzuntzeko bizkontea eskola zenbeitetan ibili zelarik, ohartu zen harek galdera frantsesez egin bezen segur, erantzun zuzena ematen zutela hurrek biziki untsa. Baina galdera berak egin zituelarik euskaraz, haur guziak ahoa zabalik, ixil-ixila. Frantsesezko erantzunak gogoz ikasiak zituzten, lehenago gure elizetan latinezko kantuak bezela... ezer ulertu gabe!

Ondoko urtean, Latsiako eskolara igorri zuten, zigorrez, Itsasuko mendialdean baldintza beretan ari zela, haur guziak klase bakar



Eskola, eliza ategaineko sala horretan egiten zen Zuraiden

batetan, 32 neska-mutiko, ahal zutelarik heldu haiek ere, frantsesaren ikasteko gogo handirik gabe.

Zuraideko auzapezari gutun bat izenpearazion, inspektoreari igortzeko, herrira itzul zedien eskatuz. Aintzineko errienta, bai eta inspektorearentzat ez omen zuen behar zen errespeturik erakusten gutun horrek. Hori harturik aitzakitzat, prefetak erabaki zuen irakaslegotik botatzea. Goytinok berria nonbaitik zilatu. Urte zaharrez bere demisioa igorri zion prefetari eta 1887ko lehen egunetan, Ameriketara joan kontrabandan, itsasontzia Pasaian hartuz hain segur, beste ainitzek egi-ten zuten bezela.



Sebastian Viscainok egin zuen Kaliforniako kostaldeko lehen mapetarik bat

## *Iparameriketara*

Ez zen lur hartan sartzen zen lehen Euskalduna. Beste bi Kanboar baziren, bat bere osaba, Beñat Etxeberri, bestea ere ahaidea, Migel Leonis, biak bat bestea bezen aberatsak. Geroxago aipatuko ditugu.

Kaliforniako historia kondatzen duen liburu batetan ikusi dugu han ibili lehen Europarrak XVI. mendeko lehen partean, Grijalva, Cortes eta Ulloa zirela. Lehen errege ordea: Antonio de Mendoza. Azken bi hauek euskaldunak. 1587an Macaotik Kaliforniara etorri zen *Nuestra Señora de Buena Esperanza* untzia, besteak beste lau euskaldun barnean: Pedro de Unamuno kapitaina, Joan de Mendoza, Joan de Aranguren eta Fray Martin Inazio de Loiola, Iñaki sainduaren anaiarekin.

San Diego, San Gabriel eta beste 17 misio esparru sortu zituzten jesuitetarik 10, euskaldunak ziren. Eliza horren zutabetarik, Sistiaga:



Latsiako auzoaldea Itsasun. Ezkerretarik bigarren etxea: eskola

hain zuten indioek estimatzen non ainitzek Sistiaga deitu baitzituzten beren haurrak.

Kaliforniako lehen agronomoa, XVIII. mendean, Juan de Ugarte izan zen: zernahi landare eta fruitu berri ekarri zituen.

Jesuitak Espainian debekatuak izan zirelarik, lekuak hustu behar izan zituzten Kaliforniatik ere, Frantziskotarrek ordaintzen edo ordezkatzzen zituztela: 60 urtez 26 frantziskotar euskaldun ibili dira han. Kalifornian ziren 21 parropietarik 9, Lasuen euskaldunak sortuak dira.

Mexikotik Kaliforniara eta haratago joateko itsasontziak eta mariñelak behar ziren: San Blas portu berriaren lehen administratzailea, Juan de Urrengoetxea. Ontzigintzaren arduradun, bat bestearen onditik: Pedro de Izagirre, Frantzisko Segurola eta Manuel de Bazterretxea.

Kaliforniak izan duen gobernadore hobere-netarik: Diego de Borica Retegi, *Real Sociedad de los Amigos del Pais*-eko kidea. Izendatua izan zelarik 25.000 ardi ziren han. Sei urteren buruan ehun milaz goiti.

Horiek denek egonaldiak egiten zituzten eta beren herrira itzultzen. Alderat han finkatu lehen euskalduna Jose Amezti Donostiar abokat eta tratalaria izan daiteke. 1834an gobernadorearen alabarekin ezkondu zen eta honek dotetzat eman zion 4.000 hektareako eremua. Hazkuntzari lotu zen, gero beste hainbeste euskaldunek eginen zuten bezela. Montereyko epaile eta auzapez izanen zen.

Garai beretakoa da Miguel de Pedorena, San Diegon ezkondu eta finkatu lehen euskalduna. Mexikoren kontrako gerlan, Kalifornia Estatu Batuetan sartzearen alde agertu baitzen, mugasarien biltzale nagusi izendatua izan zen.



Indioak beren lastozko etxolekin



Los Angeles XIX. mende hasieran



## Urrearen distira

Jose Antonio Aguirre Donostiarrak ere espagnolengaraietan hasi zen komertzioan Kalifornian, hor berean finkatzeko geroago: 1843an 24.000 hektaretako *Rancho el Tejon* arrantxoaren jabea zen. Martin, honen semea, famatua zen Los Angelesetan uholde batzutan 22 haur eta emazte itotzetik salbatu zituelakoz. Hiriko sheriff hautatua izan zen eta honek zuen Goytino arrestatu 1889an gero ikusiko dugun bezela.



Juan Bautista Anzak egin zuen lehen aldikotz Mezikatik eta Kaliforniarako bidea, lurrez 1774an. Bere aitona Hernaniarra, Kalifornian zen 1712n



Los Angelesetako portua

XIX mende erdian, Kalifornia Estatu Batuetan sartzearekin aurkitu zuten urrea eta jendea trumilka etorri zen. Euskaldunak ehunka etorri ziren Txile, Argentina eta Urugaytik. Bakar batzu aberastu ziren urrearekin, Pete Aguerreberry Heriots Ibarrean bezela. Baina, urre meategietan haragia jan behar zutela oharturik, hobekienik ezagutzen zuten ofizionario lotu zitzaizkion laster euskaldunak: ardi hazkuntzari.



Martin Aguirre, 1889an Goytino gelditu zuen sheriffa



San Diegon egin Constable edo polizia buruen bilera batetan; goian ezkerretik laugarrena, Harriet, beherean azkena Etcheverry



New Orleansetik Los Angelesetara oinez joan zen Xemartin Uharriet: erdian zutik bigoteduna



Los Angelesetako karrika bat lehen

Lehen imigratu horietarik bazen oraino bizi mende ondarrean. *Escualdun Gazetan* ikusi dugu Pierre Oxandabartz, Gaston Oxarart, Pierre Larronde eta Domingo Amestoy 1849an jinak zirela Kaliforniara Buenos Airesetarik. *Eskual Herria* Goytinorenak berriz aipatzen du, Montevideotik 1849an elgarrekin etorriak ziren Juan Latsaga, J. M. Agirre, Martina Agirre, Juan Garat, Juan Dickou eta Florentzio Eizagak 1893ko urrian, San Franziskon elgarrekin egin afaria.

Hiriaren hazkundea nolakoa izan zen erakusten duten datu batzu: 1830an 200 bizilagun ziren Los Angelesetan, 1.250 herritar 1840an;

hamaika mila 1880an, Goytino etorri aintzinttoan; ehun mila 1900an eta bi milioi 1923an, Goytinoren bizi bukaeran. Onddoak bezela handitzen zirela erraten baitzen, zinez hala zen. XIX. mende erdian joandako euskaldunen kopurua ere goititu zen: 2.000ko bat bazitezken XIX. mende ondarrean. Horietarik bat beraz Goytino.

Eskola ematen ari izana pentsatzen duzue ez zela artzain joan mendira. Ezagutzen diogun lehen ofizioa, ostalari: Amelineau deitu frantses batekin partzuer *Le Buffet Parisien* kudeatzen zuen. Bainan laster aurkitu zuen egokia: goa zitzaion ofizioa, kazetaritza.

## Kazetaritzan

Frantses ainitz bazen, hiru astekari izate-  
radinokoan: *L'Union Nouvelle*, *Le Progrès*  
eta *Le Français*. Euskaldunak baziren *Le*  
*Progrès*-en inguruan, hala nola kazeta-  
ren buru izanen zen Viollé baionesa:  
Pascal Ballade artzain Euskaldunak  
etor arazia zuen Los Angelesetara.  
1891eko jabeetan 3 Biarnes ere bazi-  
ren, Senthous anaiak.

Astekariaren arduradunak askotan  
aldatzen ziren, ez baitziren ofizio  
horretarakoak eta beste lan bat aurki-  
tzen baitzuten. Irakasle izana, frantsesa  
ongi menperatzen, beste ofiziorik ez,  
eta lan horretarako gizon egokia aurki-



Martin Biscailuz abokata; bere emaztea eta Eugène semearekin

tu zuten Goytinorekin. Ez dakigu noiz sartu  
zen kazetaren arduradun baina 1889an urta-  
rrileko 26an, ezagutzen dugun astekariaren  
zenbaki zaharrenean, Goytinoren izena ager-  
tzen da erredatore bezela eta hor jarraikiko  
du 1894an, bestalde aski lan izanki eta kazeta  
utziko duen arte.

Kazetak berak dio 5.000 frantses bazela, *Le*  
*Progrès* zela kazeta frantses zaharrena eta ira-  
kurtuena. Zaharrena ez zen, *L'Union* lehen-  
gokoa baitzen. Irakurtuena zenik ezin jakin



Los Angelesetako karrika bat orai

OJDrik ez baitzen. Zenbaki batetan erraten du 750 harpidedun bazituela. Hori ere ezin erran zein heinetaradino egia den.

Bainan kazeta baten egitea ez zitekeen sorgingoa orduko Los Angelesetan. Martin Biskailuzek hirugarren zenbakiarekin gelditu zuen bere *Escualdun Gazeta*, ez zuelakotz 65 harpidedunik izan. 65 aski ziren inprimeria pagatzeko berak idazten zuenaz!

Goytinorekin *Le Progrès*-en ari zen Jean Trébaolek utzi eta ondoko astean berean atera zuen *Le Français* kazeta berria. Aste bat aski zen beraz astekari baten egitea asmatzeko eta asmoa gauzatzeko!



*Le Progrès*, Goytinoren frantses kazeta eta *Le Français* Trébaol bere adiskidearena



Besten aldean ttantto bat zilarra bazuen Goytinoren agerkariak: *Organe officiel de la Société de Bienfaisance Mutuelle* ekartzen du. Erien seguru bat zen elkarte horren berri emaile ofiziala zen eta kideek *Le Progrès* erosi behar harat honaten berri jakiteko. Biltzar nagusi batean 150 kide bildu ziren behin, bainan milaz goiti baziren orotara.

Kazetak ez zuen kolore politikorik izan 1892 arte: *journal hebdomadaire indépendant* ekartzen zuen. Bainan urte horretako uztailaren 13an errepublikar deklaratu zuen bere burua, Estatu Batuei zoakienaz. Alabainan, Goytino

errepublikar alderdiko militante zen eta hauteskunde kanpainetan honek egiten zituen españolezko mintzaldiak.

Frantziako politikari zoakionaz, antisemita amorratua agertzen da bere artikuluetan. Hazparnen ezagutua zuen Elizanbuu fraileak ziokeen antisemita hazia sartu gogoan, honek ere ez baitzizakeen begiko zikina baino gehiago jasan juduak, ez eta Frantziako errepublika. Goytinori doakionaz errepublikar bilakatu da Frantziari buruz ere, «gorri» beraz, Euskal Herrian «xuri» izana zelarik, bainan ez baitezpada gogoeta ideologiko sakonak egin ondoan.



Ezkerrekoa, Eugène Biscailuz Los Angelesetako sheriffa kontrabandako 1.500 pinta aguerdinta lurrera ixurtzen ari... bere aita gogoan

Berdoly gorriak bere deputatu postua kendu ziolarik hemengo *Eskualduna* astekariaren buru zen Etcheverryri, honi batere gustatu ez zitzaion artikulu bat agertu zen *Eskual Herrian*. Gaitzeko polemika izan zen bi kazeten artean, orain asma ere ez genezaken heinekoa, *Le Réveil Basque*, hemengo gorrien kazetak Goytinoren alderdia hartzen zuela. Gero, alabainan, lehenago xuria izana bazen ere, Goytino ez zitekeen ez Frantziako gorrien kontra izan, ez eta Etcheverry xuriaren alde.

*Le Progrès*-ek lau orrialde zeuzkan. Hango Frantsesen berriak ematen zituen eta Frantses horien artean sartzen dira Iparraldeko euskaldunak. Hostokada bat bazen. Askotan Goytinok berak izenpetu artikulu bat. Artikulu horiek frangotan polemikoak ziren. Oler-

kiak ere idazten zituen frantsesez, horiek ere polemikoak zenbeit aldiz. 8 aldiz ibili zen auzitegietan artikulu horiengatik, nahiz ez zen aldi bat ere kondenatua izan.

Agerkari hortako zuzendaria norbeit da. Behin baino gehiagotan gomitatua da ekintza ofizial batzuetara, hala nola San Frantziskora, Berkley unibersitateko urteburuko sarien emaitera edo San Diegora *L. Champlain* frantses armadako itsasontzia hor gelditu zen batez, marínelei eskainia izan zitzaion omenaldian: mintzaldia Goytinoren gain izan zen.

Kazetaritzaz beste lan askorentzat ere Goytino dei egiten diote: Auzitegian itzultzale bat behar delarik euskaldun batentzat, hil den euskaldun baten ondasunak estimatu behar direlarik.

*Eskualduna* «xurien» kazeta



Hiriko burjesetarik delako marka, ez ohizko agusagailuak baditu: Mastiff arrazako zakurra badu eta bi aldiz lehen saria irabazi du. Denbora pasa banana landatzen aritzen da, ordu arte nehork ez zuelarik uste bananarik egin zitekeenik Kalifornia beherean. Eta oso banana onak omen dira. Oilo hazkuntza ere baitu, ez ditu ohizko oiloak, prefosta, baizik Houdans arrazakoak, Parisko *Jardin d'Acclimations* delakotik eramanak.

Hilabete buruan ogiaren gainean erreximeta emateko bezela, *Red Star Line* eta *Compagnie Générale Transatlantique* itsas karrario konpainietako ordezkaria da lehen batean, *Compagnie Bordelaise* eta *La ligne Française du Havre*koa gero.

Notario onartua da, 1893an, inglesa ez dakiten euskaldun gehienak harengana etortzen dira, beharrezan direnean.



Etcheverry, *Eskualduna* kazetaren sortzailea

## Californiako Eskual Herria

Eta zinez lanaren beldurrik ez duelakoa marka, 1894ko uztailean sortzen du euskarazko astekaria, *Californiako Eskual Herria*. Ez da bakarrik: *Eskual Herria*-ren sortzea aipatzen duelarik *Le Progrès* frantsesezkoan, bi aldiz aipatzen du euskaldun kapitalista moltxo bat. Nor ote ziren «kapitalixta» horiek? Hain segur aldizkariaren korrespondentsal izanen direnak zenbeit bederen: J.F.Yparraguirre San Frantziskoko hotel baten jabea, J. Iribaren sortzez Bankarra, Ken kondadokoa, ile tratuan ari dena, Manuel Ordoki, Los Angelesestako *Hotel des Pyrénées*-tako jabea, Bernardo Etcheverry bere osaba, San Diego kondadoko kapitalista handietarik, irakurtu dugunaz.



Jose Mascarel, Goytinoren aitaginarreba



Publiziateak betetzen du kazetaren laurdena. Gehiena euskaraz, azpimarratu behar du! *Le Progrès* frantsesezko agerkariaren publizitate egileetarik parte bat bildu zuen astekari berriarentzat ere eta gaineratikoak euskaldunak ziren.

Ilusioz beterik hasten da: «Bertze nazione guziek beren gazetak badituzte eta gu, hainbortez garelarik hedatuak Pazifiko kostan, ez da justu baizik junta giten denak berrikeriari baten medioz. Gure interesak, hemen bederen, igualtsuak dira eta gure mintzaira ederraren medioz bat bertzen berriak jakiten ahal ditugu gure lekutik higitu gabe.



Californiako *Eskual Herria*-ren lehen alea

Gure indar guzia heldu da gure mintzo sakratutik. Gure eskuara ederrari jarraikitzen giren denboran, gure arraza joanen da hedatuz eta emendatuz bazter guzietan».

Lehenengoa 200 aletan ateratzen da. Abenduan 1.720tan da eta ondoko urte ondarrean 3.000tan izatea espero duela idazten dio Antonio Abbadiari. Behin 1.000 igortzen ditu Hego Ameriketara. Sortu eta sei hilabeteren buruan idazten du irakurleak badituela «Kalifornia, Oregon, Nevada, Montana, Arizona, Texas, Kanada, Mekzika, Kuba, Puerto Riko, Brasil, Txile, Ekuador, Guatemala, Uruguay, La Plata, Paraguay, Euskal Herria, Frantzia, Espainian, Portugal, Italia, Autrixia, Alemania eta Inglaterran».

Kopurua emendatu edo gehitu ahala, astekariaren neurriak ere haundituz doaz. 40x28 baldin bazen hastapenean, bosgarren hilabeteetan 50x33tara pasatzen da. Azkenean 54x38tan agertzeko, titulu berriarekin: *Eskual Herria* xoilik. «Jaun Goikoa eta Sor lekua» lema agertzen da. Ordu arte tituluaren pean baitzeukan «Berriketari eskualduna agertzen dena larunbate guzietz» titulu aldatzearekin: «Berriketari Eskualduna argitaratzen dena Californian aste guzietz».

Korrespontsalak baditu San Frantzisko, Los Angeles, Tehachapy, Mexiko, eta Montevideon.

Hiru dolarretan da urtesaria Estatu Batuetan, 15 liberetan Frantzian, *Eskualduna* 8 liberetan delarik Amerikanoentzat.

## Kazetaren mamia

Zer aipatzen duen? Lehen orrialdean baditugu Munduko eta Iparraldeko berriak, lehenik *Eskualduna*-tik hartuak, gero *Le Réveil Basque* ere baliatzen du. 1893ko agorrilaren 20an hauteskunderak izan direlarik Frantzian, ondoko larunbatean berean ematen ditu ondorioak: telegrama baliatu duke horretarako zeren eta Euskal Herriko ondorioak 3 asteren buruan baizik ez ditu agertu ahal izan herriz herri: hemengo kazetatik ari zitekeen eta hauek itsasontziz joan behar Estatu Batuetara eta, beste hainbeste bide gelditzen Atlantikotik Pazifikora iragaiteko.



Californiako Eskual Herria-ren azken alea

Euskal herrietako berriak ere lehen orrialdean agertzen dira, hemen lapur bat gelditua izan dela, hor ixtripu bat izan dela, han norbeit hil eta horrelako, herri horietako Amerikanoak interesatzen dituzten berriak.

Artetan marrazki zenbait bada: Leon XIII aita saildua, Mc Mahon mariskala, Gibbons Balti-



Miguel Leonis bere emazte Indioarekin

moreko kardinala, De Mello, Brasilen oldartu almirantea, urriko 21ean, 1893an; 1894an, ekaineko 30ean, Sadi Carnot Frantziako lehendakariarena, atentatu batetan erail zutelarik.

Bigarren orrialdean ditugu komuzki Ameriketako berriak. Gehienetan hiruzpalau lerro: horrelakoa Los Angelesetara etorri dela, halakoa ezkondu, holakoa urberoetara joan, beste batek kiebra egin duela. «Quatro de Julio» (Ameriketako jai nazionala) bazkari eder batekin ospatu dutela zenbeitek. Gelditzen diren Kaliforniako euskaldun zaharrenak elgarretaratu direla. Bazkari horietan ikusten ditugu bertsolari, musikari eta kantari euskaldunak.

Bistan dena heriotze, sortze, ezkontza, Europatik etortze eta Europara itzultze aipu direla. Ixtripuak, beribilak asmatu aintzin ere gertatzen baitziren, zalditik eroriz, edo karrosa uzkailli edo irauliz. Minartuak, egun guziaz harma eskuan dabilzan artzainei tiro bat botatzea gertatzen baitzaie uste gabetarik.

Presondegian edo eroetxean dauden euskaldunei bisita bat egin izan zaiotela. Isuna pagatu behar izan duela, wiskia kontrabandan saldu duen batek: nola egon kontrabandan ari gabe, euskaldunak?

Bainan bada ere xehetasun gehiago, bereziki Tehachapiko Manex batekin: honek kazetaren zutabe osoak betetzen ditu berri eta iruzkinekin eta iritziekin.


## **Bizimodua**

Xehetasunak ere artzain bat auzitan emana delarik ardiak haizu ez diren mendietan ibilirik: edozeini gerta zitzaikiokkeen eta artzain guziak interestazen zituen gaia zen. Artilearen prezioa peko erre kara jautsi dela, gobernamentuak hartzen edo hartzen ez dituen erabakiak egoera horretan. Eurite eta idorte nolaz ez: 6.000 ardi egarriz hil ziren behin Mohaveko desertuan! Eta artzain handi andana batek kiebra egina zenbeit urte lehenago idorte izigarri baten ondorioz.

Haur batzu zein eskolatan sartu diren edo zein diploma eskuratu duten. Ez ziren denak mendian hurbiltzekorik ere. Artzainen ondolan badira ostatu jabeak, okinak, poliziak. Bos-

ten izenak aurkitu ditugu eta horietarik bi, Los Angelesetako polizia buru izanak, bat Agirre jadanik aipatua, bestea Biscailuz, *Euscaldun Gazeta* sortu zuenaren semea.

Bixtan da mendiko artzain xumea baino gehiago aipu dela Amerikano handia. Nola egon erran gabe Suedia eta Norbegiako kontsularekin ezkondua zen Maria Dominika Garategi Arnegitarrek 18.000\$ utzi zituela hiltzean. Edo Pedro Bankak 5.000 zikiro saldu dituela kolpean. Texasera joan den Pierre Uharrietek 5.000 ardi, 200 abere, etxe eder bat eta 600 akre lur erosi dituela. Edo oraino Fultertoneko Domingo Baztanchri Aldudarrak 1.400 zaku gari eta 6.000 zaku garagar saldu dituela. Honen semek zuten sortu garai



Jean Baptiste Leonis, Vernon hiria eta bi bankoren sortzaileetarik

Jean Etchemendy, Los Angelesetako lehen okinetarik bat

haietan munduko handiena zen liranjadoia eta ura botailan eman: Los Angelesetako urak kilometroak egiten ditu ehunka, menditik etortzeko hodiz.

*S. Joseph Academy* eta *Business Colege* eskoletara igorriak zituen Bastanchury Urepeleko artzainak bere semak! Bainan beren diploma guziengatik, beren lurrak erdi preziotan saldu, jakin gabe petrolioa bazela azpian!

Jakin arazi behar du Mohave desertuko artzainen topagune den Tehachapin, *Piute* hotelean 10.000 dolarren makurrak egin dituela suak. Pilota plaza ere berreraiki izan dela jakiten dugu geroxago, zurez!

Duela zenbeit dotzena urte oso modakoak ziren «treinen erasoak» filmetan: garai haieta-

koak dira. Biga segurik aipatuak dira xehetasunekin kazetan.

Indioak ere bai, bainan aitortu behar dugu garai haietan Frantzian hain erroturik zen juduen kontrako arrazakeria bera agertzen dela indio eta txinosen aldera.

Azken bi orrialdeetan, euskarazko liburu bat hostakadan eta bertsoak nahiz lehen orrialdean ere ikusten den hauetarik. Goytinok berak idatzi ditu 11 bainan 350 bat kondatu ditugu orotara. Batzuk lehenagoko kantu zaharrak edo hemengo bertsolariek idatziak, besteak Amerikanoenak; 1894an gorriek Hazparden antolatu lorejokoetan lehen saria eraman zuen Kalifornian zegoen Darroupe Uruñarrak.



Domingo Amestoy Goytinoren garaietako  
Euskaladun aberatsenatarik



Domingo Bastanchury

## Diru iturriak

Aipatu behar dira ere publizitateak, kazetaren laurdena nonbeit han. Ja-ja denak euskaraz. Bada bixtan dena euskal hotelena, behin baino gehiagotan xehetasun balios honekin «ganbera (edo logela) garbiak» edo «ohe onak»! Ez zitezkeen denetan hala. Beste batzuek jakin arazten dute pilota plaza badutela, eritetxetik edo burdinbidetik hurbil daudela.

Baziren ere sendagile, abokat, denda, treine-nak... bai eta «erditzaile» batena Emagin erraten dugu, bainan hitz horrek ere badu bere aberastasuna: haurra sortzean bere erdia ematen diola amak.

Ongi saltzen, ongi egina, zergatik gelditzen da bada 1897 urtean noizbeit, ez dakigu zuzen noiz? 1898an izan zuen auzi baten karietara *Los Angeles Times* egunkariak idatzi artikulu batetan ikasten dugu euskaldunak mendian bizi eta ez irakurtzera ekarriak izanez, bere berriketaria gelditu behar izan zuela.

Norat joaten ziren bada aste oroz, Goytinok aipatu 2.000 aleak? *Le Progrès* bere lehen kazetan bezela, *Euskal Herria*-n ere askotan ikusten da oharño hau: agerkari hau nahi ez baduzu, igor gibelera. Horrek erran nahi du harpidetzarik pagatu ez zuten euskaldunei igortzen ziela. Beste behin, kazeta ez duela



Pierre Larronde eta bere emaztea, garai haietako Euskaldun aberatsenetarik

gehiago eskuratzen idazten dion bati ematen dio erantzuna: urte batez pagatu gabe izan duela; harpidetza paga dezan! Zenbat ziren horrelakoak, ezin jakin. Asko dudarik gabe.

Bainan nola irau du 5 urtez ez bazen erren-tagarri? Biscailuzekin ikusi dugu 75 harpidedun aski zitzaizkiola inprimategia pagatzeko. Hortik haratekoa, posta saria pagatu eta, egi-learentzat beraz. 300 bat harpidedunekin mila dolarrez goiti sartzen zen urtean, publizitatea bestalde. Eta publizitatearentzat, irakurleek pagatua zuten ala ez, berdin balio zuen, kazeta irakurtzen zuten.



*Bastanchury* ura, botoiletan

## ***Biziaren bururatze iluna***

Notario izendatua izana zen, 1894an, bi urte-  
rentzat eta bi urte horiekin gelditu da. Zerga-  
tik ez zuen kargua berritu?

Guk dakigula zortzi auzi izan ditu, gehienetan  
luma txorrotxegi izanik bere berriketarian,  
behin ere kondenatua izan gabe hargatik. Bai-  
nan beste biga, diruagatik izan zituen.

Lehena Ameriketara etorri eta urte bat gabe,  
Leonis bere ahaidearekin. Hau zahartua eta  
aberats okitua izanez, 3.500 dolarreko txeke  
faltsu bat izenpetu zuen honen izenean eta  
dirua altxatu. Auzia iragaiten ari zela, Leonis  
hil zen karrosa ixtripuz. Eta afera horretan  
gelditu gehiagokorik gabe. Leonisek auzia  
pausatu zuelarik zitzaion etxera etorri Agirre  
sheriffa. 500\$ berme emanik, libro gelditu zen.

Bigarren auzi bat izanen du 1899an. Bi artzain  
euskaldunen dirua sartua zuen bankuan. Bai-  
nan beren diruaren bila etorri zirelarik, parte  
bat eskas zen! Leonisek hartua. Kazeta batek  
zioenaz jenden konfiantza galdu zuen. Kazeta  
gelditua, notarioa kargua galdua, euskaldunen  
konfiantza galdua eta zer ari izan zen?

Lehen batean diru enpresa batetan ari izan  
zen lanean. Ez dakigu noiz arte. Azken urtee-  
tan, iduriz, ostatu batetan ari zen. Arte horre-  
tan erosiak zituen lur batzu arrendatu zituen,  
oilo hazkuntza bat izan, bainan bere ontasu-  
nak saldu zituzkeen emeki-emeki, zeren eta  
biziko azken hilabeteetan izan zuen auzirako  
abokata pagatzeko dirua baizik ez zitzaion



Hotel des Pyrénées, Ordoquiren hotela



Joakin Murrieta, garai haietako  
gaistagin handia



Juan Murrieta Alkortakoak eman  
zien bere izena, Murrieta herria eta  
Murrieta Hot Springs kanbo ureri





Farmers and Merchant's Bank, Goytinoren bankoa. Amestoy sortzailletarik bat zen

gelditzen. Zortzi urte hartan utzia zuen emazteak pagatu zituen ehorzketa gastuak. Baina ez zuen gurutzerik ere bere hilobian, ehorzketei garrantzia handia ematen zielarik kazetan.

Azken auzi hori izan zuen, alkohola kontrabandan egiten zuelakotz. Lekuko bat ihes joatera pusatu edo bultza zuen eta horrengatik, bigarren mailakoa baizik izanzen ez zen auzi xoil bat oso serioa bilakatu zen: gelditzen zizaion diru guzia xahutu zuen abokat handi baten pagatzeko. Auzitegiak erabakia hartu aintzin hil zen, bakarrik, erdi miserian iduriz 1920ko apirilaren 14an.

Gauza bat gelditzen da, euskara hutsez iraun duen lehen astekaria egin duela Goytinok, kalitatezko astekaria. XIX. mendeko gure literaturaren parte eder bat hor dago, batere ez ezaguna: 900 bat orrialde. Kazeta batetako orrialdeak! Historio aldetik bada hor zer ikasi gure amerikanoetaz: garai haietan han ziren 700 bat euskaldunen izenak aurkitu baititugu.

Orai badakigu nor zen Goytino, nahiz gune ezezagunak gelditzen diren bere bizian. Badakigu kazeta hori badela, mikrofilmak badira bai Baionan, bai Bilbon. Bidea zabalik dago ikerketa gehiago egin nahiko luketenentzat ala hemen, ala han.



Goytino, Armand bere ilobarekin, 1915 irian

*Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak liburuxka honen material grafikoa ondorengoei esker lortu du:*

- *Goytino familia*
- *Xipri Arbelbide*

Zuzendaritza: Mikel Atxaga

Argitaraldia: 1.a, 2003ko urria

Ale-kopurua: 2.500

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa  
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Argazkilaria: Joseba Olalde

Fotokonposizioa: Gráficas Varona, S.A.  
Polígono «El Montalvo», parcela 49 - Salamanca

Inprimaketa: Gráficas Varona, S.A.  
Polígono «El Montalvo», parcela 49 - Salamanca

ISBN: 84-457-2021-X (Lan osoarena)  
84-457-2024-4

L.G.: S-\*\*\*-2003